

BEZEROAREKIKO HARREMANA



Bezeroarekiko harremana pertsonala izango da, hau da, gaixotuen familiarekin korreoaz edo telefono zenbaki baten bidez zuzenean komunikatuko gara.

Gainera, astean behin gaixoen familiei, txosten bat bat bidaliko zaie informazio pertsonalizatuarekin. Medikamenturen bat hartu baldin badute bertan agertuko da eta datu gehiago ere agertuko dira, zer jan duten astean zehar adibidez. Honez gain, bertako espezialistek egokia ikusten dutenean, familiak aurrez aurreko bisitak edo kontsultak edukitzeko aukera edukiko dute.

Horretaz aparte, gure web-orri pertsonala sortuko dugu, horrela, edozein zalantza edota komunikatzeko beharren aurrean, zuzenean komunikatzeko aukera izan dezan edonork, batez ere, senideren baten kasuan.

Gure enpresaren eta bezeroaren arteko harremana laguntza-pertsonalekoa izango da.